Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2015-2016 ikasturtea

Euskal mitologia tradizio eta berrikuntzen artean: Olentzeroren kasua

Egilea: **Zuriñe Perez Azpitarte**

Zuzendaria: **Javier Rojo Cobos**

Leioan, 2016(e)ko maiatzaren 26 (a)n

AURKIBIDEA

Sarrera 4

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: zer da mitologia? ……..……...5

   1.1. Mitoak ……..……6

   1.2. Mitologia konparatua eta euskal mitologia...……9

2. Metodologia ……..……. 13

3. Olentzero: tradizio gaurkotua ……..... 14

   3.1. Pertsonaiaren esanahia …….. 16

   3.2. Ipuinaren analisia ……...21

4. Ondorioak …….……...26

5. Erreferentzia bibliografikoak …….……..29

Zuriñe Perez Azpirtarte

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lan hau azterketa kualitatibo bat da. Lan kualitatibo honetan, gai bat ulertu, deskribatu, konparatu eta aztertzen da. Lan honen helburua tradizioa nola gaurkotzen den ikustea da eta horretarako euskal mitologiaren parte den Olentzeroren kasua aztertzen da bertan. Azterketa hori aurrera eramateko lanean atal desberdinak daude: iturri eta dokumentu desberdinetako Olentzeroren kondairaren buruzko informazioa jasotzen duena, Olentzerori egozten zaizkion kanten analisia eta gaur egungo literatura testu moderno baten analisia. Lan honen bidez ondorioztatu daiteke tradizioa gaurkotu egiten dela eta Olentzeroren kondaira ez dela salbuespen bat izan.

Olentzero, kondaira, euskal mitologia, tradizioa, gaurkotzea

Este Trabajo de Fin de Curso es un estudio cualitativo. En este trabajo cualitativo se entiende un tema, se describe, se compara y se investiga. El objetivo del trabajo es ver cómo se actualiza la tradición, y para eso se analiza el caso de Olentzero, que forma parte de la mitología vasca. Para llevar adelante esa investigación, en el trabajo hay diferentes partes: la información de diferentes fuentes y documentos sobre la leyenda de Olentzero, el análisis de las canciones que se le han asignado a Olentzero y el análisis de un texto literario moderno. Mediante este trabajo se puede deducir que la tradición si se actualiza y que la leyenda de Olentzero no ha sido una excepción.

Olentzero, leyenda, mitología vasca, tradición, actualización

This degree´s final project is a qualitative research. In this qualitative essay a subject is understood, described, compared and investigated. This work's purpose is analyzing how tradition is updated and in order to do this Olentzero, which is part of the Basque mythology, is going to be examined. In order to accomplish this investigation, there are different parts in this essay: the information obtained through different sources and documents about the legend of Olentzero, the analysis of the songs which have been assigned to it and the analysis of a modern literary text. Through this work, it can be deduced that the tradition is indeed updated and Olentzero is not an exception.

Olentzero, legend, Basque mythology, tradition, updating

SARRERA

Gradu Amaierako Lan hau ikerketan edo arakatze sistematikoan oinarritzen da. Lan kualitatibo honetan, gai bat ulertu, deskribatu, konparatu eta aztertzen da, eta guzti horrekin txosten bat sortu. Aipatutako gai hori euskal mitologian, Olentzeroren kasuan eta honen eraldaketan oinarritzen da batik bat. Horregatik, lanaren helburua tradizioa nola gaurkotu den ikustea da. Horretarako erabili den metodologia iturri desberdinetatik informazioa biltzen eta kanten eta literatur testu baten analisia egitean datza.

Dokumentu hau beraien artean lotura duten atal eta gai desberdinetan bereizten da. Lehenik eta behin mitologia, mitoak eta euskal mitologiaren konparaketa lantzen da. Atal honek burua kokatzen laguntzen du eta baita lanaren nondik norakoa ulertzen. Mitologia eta mitoen gaiak orokorragoak dira, hau da, ez diote kultura zehatz bati erreferentzia egiten.

Ondoren, lanaren mamian sartu, gure kulturara hurbildu eta Olentzeroren pertsonaian eta bere kondairan murgiltzen hasten gara, non euskal mitologiako pertsonai honen jatorria, ezaugarriak, eraldaketak, nondik norakoak, funtzioak, e.a. azaltzen diren. Horrekin batera, historian zehar Olentzeroren kondairak jasan dituen aldaketak antzematen dira eta baita Olentzero momentu desberdinetatik pasatu dela gaur egun dena bilakatu arte. Izan ere, aspaldian, pertsonaia paganoa zenetik, kristautasunak bereganatu eta jesusen mezulari bilakatu zuen arte, eta gaur egun den pertsonaia izatera heldu arte, hainbat sinesmen desberdinen parte izan da Olentzero.

Olentzeroren kondaira eta pertsonaia gaurkotu diren aztertzen jarraitzeko, beste bi atal daude lanean. Alde batetik, gure gizartean (beste gehienetan bezala) horren garrantzitsuak diren abestietara hurbilduz, Olentzerori ezarri izan zaizkion kanten analisia azaltzen da (sakonki gaur egun ezagutzen dena). Kondairaren eraldaketak abestietan antzemango dira baita ere, Olentzerori buruz belaunaldi batetik bestera transmititzen diren datuak direlako. Beste aldetik, gaur eguneko literatur testu moderno baten analisia ere azaltzen da. Hain zuzen ere, Pello Añorga idazleak umeentzako idatzitako ipuin baten analisia. Umeei, gaur egun kondaira zahar honen berri nola ematen zaien ezagutzeko baliabide paregabea dena, eta modu berean, zein gauza aldatu, egokitu, desagertu, mantendu, e.a. diren ezagutzeko balio duena.

Tradizioa gaurkotuz joatea garrantzitsua eta beharrezkoa da, horrela mantendu eta gure parte izaten jarraitu dezan. Tradizioa aspaldiko ohiturek osatzen duten arren, ezin da soilik garai batera mugatu, izan ere, etorkizunean, gure ohiturak ere tradizioaren parte izango direlako. Modu horretan, tradizioa gero eta aberatsagoa bilakatuz joango da. Olentzeroren kondaira beraz, gaurkotu egin dela aurre ondorioztatu daiteke, oraindik ere, gure parte sentitzen dugulako. Horrekin ulertu daiteke, moldatuz eta egokituz joan dela eta ez dela inoiz alde batera gelditu.

1. ESPARRU TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA: ZER DA MITOLOGIA?

Talde etniko guztiek kultura bat landu dute, eta horrekin batera bizitzeko modu bat garatu, zeinek gizakiaren jarrera azaltzen duen bere izatearen edo bizitzeko arazoen aurrean. Jarrera horietako bat erlijioa da, eta esaterako Kristautasuna urte askotan zehar nagusi izan den arren, erlijio horren edo beste erlijio guztien margenean beste kontzepzio batzuk ere badaude, ala nola, mitologia (Barandiaran, 1990: 22).

Ohikoa da ordea, mitologia kontzeptuaren inguruko ideia desegoki bat ulertzea edo izatea, mitologia ez bai da, askok pentsa bezala, zenbait ipuin fantastikoren bilduma (Grimal, 2007: 6). Mitologiaz hitz egiten dugunean beraz, errealitatea azaltzen duten erantzunen multzoaz ari gara (Hartsuaga, 2004: 11). Horregatik, mitologia bakoitzerako erantzunak tokian tokikoak izango dira, herri eta kultura bakoitzeko mitologiarekin identifikatuak sentitzen direnei beraien bizimoduaren zergatia ematen dielako. Besteak beste: nor diren, nola bizi behar duten, nola jokatu behar duten, zer helburu izan behar dituzten, nolakoa den bizi diren mundua eta inguratzen dituen Natura, e.a. Hori dela eta, mitologia eredu emailea dela esan daiteke, hots, ez duela herri edo talde bat nolakoa den adierazten, nolakoa izan nahi duen ordea. Orain arte esandakoarekin beraz, mitologia bizitzaren argitzaile dela ulertu daiteke eta horregatik, mitologiari ideologia dariola ere esaten zaio (Hartsuaga, 2004: 12).

Kultura batek jasaten dituen aldaketak ere bertako mitologian eragina dute, eta horregatik esaten da mitologia bat ez dela zertan betierekoa izan behar. Horregatik, mitologia batek beste bat ordezkatzen duenean edo tokiko bizimodua arautzeko balio ez duenean, orduan, eta ez aurretik, posible izango da ipuin fantastikoen bilduma baten bihurtzea (dagoeneko errealitatearekin loturarik ez duelako) (Hartsuaga, 2004: 12).

Herri bateko mitologia eta erlijioa deskribatu nahi direnean, talde zehatz baten sinesmenekiko eta mito tradizionalekiko dagoen lotura ezagutu behar da. Mitoen inguruko herri esaera batek dio euskaldunentzat zentzumenek hautematen dutena eta izena duen guztia omen dela egia. Eta horiek kontatzeko ere kategoriak desberdinak daudela, alde batetik, norberak hautemandakoa: hau hala da. Eta beste batetik, beste pertsona batek hautemandakoa: hau esan dute (Barandiaran, 1990: 25).

Euskal mitologia ezagutzeko beraz, beharrezkoa da bere oinarria osatu eta hori girotzen duten kontzepzio magiko eta animistak ezagutzea. Baina tamalez, magiaren praktikaz eta animismoaz Kristautasunaren aurretiko ezer gutxi ezagutzen da (Barandiaran, 1990: 26).

1.1. Mitoak

Oso zaila da pertsona guztiek onartuko duten mitoaren definizio bat ematea. Gizarte arkaikoetan esaterako, mitoak istorio errealtzat ulertzeaz gain, balio neurgaitza zutela uste zuten eta baita sakratuak, ereduzkoak eta esanguratsuak zirela. Baina gaur egun ordea mitoak, elezahar, asmakizun edo fikzio bezala ulertzen dira (Eliade, 1985: 7) eta gertaera bat edo askoren azalpena ematen dute (Barandiaran, 1990: 19). Gainera, horrekin bat, mito guztiak natura berezi baten kokatutako kontakizunak dira (Grimal, 2007: 6), eta beraz, ez dira pertsona arruntek ohiko munduan egiten dituzten istorio errealak. Mitoetan ezohiko pertsonaiak azaltzen dira, (Eliade, 1985: 12) naturaz gaindikoak direnak, guri ez dagokigun errealitate batean dihardutenak, batzuetan magiaz beteriko mundua izango dena eta beste batzuetan jainko eta jainkosaz, hitz egiteko gai diren animaliez, e.a. osaturik dagoena (Grimal, 2007: 6).

Beste gauza askoren artean, mito gehienek, naturako objektu edo gertaerak irudikatu eta giza ekintzak adierazten dituzte. Guzti horiei tradizioak edo interpretazio sakratuak sentsua edo bizia emanez (Barandiaran, 1990: 19).

Kasu gehienetan mitoak lehenaldian kontatzen dira, denboraz kanpo, neurtu ezin daitekeenean hain zuzen ere. Horretarako erabiltzen dira hurrengo motatako hasierak: “bazen behin”, “duela denbora asko”, “orain dela asko”, “aspaldi-aspaldian” … (Grimal, 2007: 6).

Mitoek badute zerbait indartsua arrazoitik kulturaren mugetaraino heltzen dena. Horregatik posible da herri guztiek berezko desira bat sentitzea bizitzako misterioetan

murgiltzeko, munduaren sorreratik, bukaeraraino hain zuzen ere. Horrekin bat, mitoek istorio sakratu bat kontatzen dute, denboraz kanpoko lehenaldi horretan gertatutakoa, “hasiera” deiturikoa. Adibide bezala jartzen da munduaren sorreraren mitoa “egiazkoa” dela mundua bertan dagoenaren froga bezala (Eliade, 1985: 12- 13).

Mitoa arakatzea, munduari buruzko sinesmenez beteriko gama bat aurkitzea da. Bai sinesmen estoikoak, ezkorrak, komikoak eta latzak, baina inoiz ez neutroak (Grimal, 2007: 8).

Mitologia tokian tokikoa dela esan den moduan, mito bakoitza ere, adierazgarria izango da dagokion kulturarentzat eta denbora pasatu arren, edo muga kulturalak igaro arren, balioa izaten jarraituko du. Elezahar edo asmakizun bezala ulertzen diren istorio horiek kultura guztietan zehar sartzen dira. Hau da, batetik edo bestetik mailegutzat hartzen dira, eta ondoren, berriz ere kontatu eta horien bertsio berriak eratzen dira. Azken finean jatorri kulturalen istorioak dira, nola bizitzak eta herrietako pentsaerek forma hartzen zuten eta denbora pasa ahala, pertsonek munduarekiko eta beraiekiko zituzten kontzepzioak moldatuz joan diren. Mitoek denbora luzean zehar gizakiaren jarrerari ereduak eskaini, horiek justifikatu eta izateari esanahia eta balorea eman diote (Eliade, 1985: 8- 11).

Mitoak ulertzeko posible da ideiak bitan bereiztea. Alde batetik, kanpoaldeko mundutik datozen elementuak kontuan hartuz, zeintzuk paisaia naturaletik eta gurekiko desberdinak diren giza taldeetatik datozen. Eta bestetik, barne bitartearen parte diren elementuak, zeintzuk gure tradizio mentalek eratzen dituzten. Horregatik, herri batetik bestera eta klase sozial batetik bestera bariazioak egon daitezkeen arren, normala da ere, gertaera bera desberdin ikusia edo ulertua izatea giza talde desberdinen edo giza talde bateko partaideen artean (Barandiaran, 1990: 20).

Euskal Herrian esaterako, batzuengan ideia mekanizistak (errealitate oro materia eta mugimenduaren kontzeptuez baliatuz azaldu daitekeena, naturak makina batek bezala funtzionatzen du) nagusitzen dira, beste batzuengan ordea, probidentzialak (jainkoa dago naturako gertakari edo gizakien ekintzen atzean) eta beste zenbaitengan kontzepzio magiko edo animistak (naturaz gaindiko izaki edota izpirituak objektu bizidun edo bizigabeetan bizi direla sinestea). Eta egoera batzuk gure pentsatzeko moduarekin gatazkan jartzen dira (Barandiaran, 1990: 21).

Gainera, *Mitologia, mitos y leyendas* liburuan mitoek helburu desberdinak dituztela azaltzen da. Alde batetik, argibide mitoak aipatzen dira, zeintzuk filosofoei eta jakin mina pisten dien beste edozeini, kontu ezezagunak planteatu eta horiei erantzun bat eskaintzen dieten. Honen baitan kokatuko lirateke erabateko ikuspuntu arrazional batetik erantzun ezin daitezkeen galderak. Besteak beste: nola hasi zen bizia? Nola hasi ziren izaki bizidunak sortzen? Zer dago heriotzaren ondoren? Ba al dago jainko edo jainkosarik? Nolakoak dira? Nola bukatuko da mundua?.

Beste aldetik mito etiologikoak sailkatzen ditu eta horiek munduan gertatzen diren gertakariak azaltzen dituzte. Zergatik dauka mendi horrek itxura hori? Zerk eragiten ditu eklipseak? Erreka honen emariak zergatik egiten du gora leku zehatz honetan? e.a. Mito etiologikoen erantzunak zientziak mespretxatzen dituenak dira eta horregatik imajinazioaren egia eskaintzen dute (Grimal, 2007: 6).

Mitoek eta beraien pertsonaiek mundua eta horren fenomenoak azaltzen ahalegintzen den gizakiaren logikaren beharrei erantzuten diete (Barandiaran, 1990: 139).

Bada ere, mitoak funtzio nagusi bakarra duela dioena, eta horren eginkizuna giza ekintza eta erritual esanguratsu guztiei (elikadura, ezkontzak, lana, hezkuntza, artea, jakituria …) ereduzko ereduak adieraztea edo eskaintzea da (Eliade, 1985: 14).

Baina horren beste mito daude non, bizimodu tradizionaleko eremu oro hartzen dituzten eta guztietan aurki daiteke beraien eragina. Egia da ere, horren beste mito egon arren, gehienak anonimoak direla, ez direlako horien egileak ezagutzen. Horren arrazoietako bat mitoen asmakuntza, idazkeraren sorkuntza baino askoz lehenagokoa delako izan daiteke. Horrez gain, toki batzuetan mitoak inolako aldaketarik gabe kontatzen bazituzten ere, besteetan elementuen bariazioak egiten zituzten, mitoak moldatu eta horrela bertsio berraik sortuz. Horren adibide argia izan daiteke, nekez ezagutzen dela erromatarren eta grekoen garaiko mitoen bertsio bakar eta baliozkoa. Inprentaren sorrerarekin batera, aurretik zeuden mito desberdinen kopurua gutxitu eta bertsio batzuk besteak baino ezagunagoak egin dira (Grimal, 2007: 7).

Orain arte beraz, mitoa, fikzio, gezur, asmakizun, elezahar … bezala deskribatu da eta horrek Kristautasuna eta pentsaera mitikoaren artean zenbait arazo sortu ditu. Izan ere, mito hitzaren esanahitzat egiazkoa ez dena ulertuz, Kristauek ez dute Jesus

(beraientzat hasieraren sortzailea dena) pertsonai mitikotzat hartzen, beraientzat ez bai da naturaz gaindiko pertsonaia bat. Horrekin bat datoz beraz, Jesusen historikotasuna frogatzen omen duten dokumentu erantzunezinak. Horregatik, argi dago ebanjelioa eta primitiboak diren beste froga batzuk elementu mitologikoz beterik daudela, beti ere existitu ezin izan direnaren sentsuaz ulertuta (Eliade, 1985: 170).

Munduarekiko kontzepzio animista sakratua zen aitzinean baina, fenomeno naturalei azalpena ematen hasi zitzaienean ideia profanoak sortzen hasi ziren (Barandiaran, 1990: 23). Gizakiak mundua arrazionalizatu, dominatu eta eraldatu duen heinean, pentsamendu profanoa hedatu egin da. Izan ere, aitzinean azaldu ezin ziren fenomeno natural askoren erantzunak eman dituelako (zientziaren bidez) eta misterio edo jainkotasunaren funtzio izatetik, ezinezko gertakari edo irudimenezkoak izatera pasatu direlako (Barandiaran, 1990: 24). Hori dela eta, izaki eta gertaeren artean aurkakotasuna sortzen da: batzuk jenioen munduan kokatzen dira eta besteak mundu naturalean (Barandiaran, 1990: 23).

Hainbat egi lortu diren arren, mitoaren teoria Jungiarra asmatu zuen Carls Jungek, eta bere esanetan mitoaren egi psikologikoa beharrezkoa da gizakion osasun psikerako. Mitoek kontatzen dituzten istorioak beharrezkoak ditugulako gizarteko eta gure buruko nahasteak eta zalantzak argitzeko. Bere ustez, mitoek gure subkontzientearen egia adierazten dute eta horietan agertzen diren jainko, jainkosa edo heroiak aspektu desberdinetan irudikatzen dira pertsonengan, besteak beste, poztasunean, inteligentzian eta oldarkortasunean (Grimal, 2007: 8).

1.2. Mitologia konparatua eta euskal mitologia

Kultura bakoitzak beraz, badu bere mitologia propio edo pertsonalizatua, hori dela eta gurea euskal mitologia izango da. Mitologia desberdinen inguruan hitz egiten denean, kasu askotan horien arteko konparaketak egiten dira, eta bata bestearen alboan jarrita horien arteko bateratasuna bilatzen da. Baina euskal mitologiak ez du ahaiderik eta beraz zeinekin konparatu? (Hartsuaga, 2004: 11).

Euskal mitologiak ahaiderik ez duela kontuan izanda, mugakideen mitologiarekin konparatzea aukera egokia da, eta hori “indoeuropar mitologia” da (Hartsuaga, 2004: 14). Indoeuroparrak (hinduak, persiarrak greziarrak, germaniarrak, eskandinaviarrak, zeltak eta erromatarrak) duela 3500 urte gutxi gora behera agertu

ziren Kaspioren eta Itsaso Beltzaren inguruetatik. Bertatik mundu osora zabaldu ziren eta beraiekin batera beraien mitologiaren eskema ideologikoa. Hori dela eta, euskal mitologiak azken bi mila urteetan jasan dituen eraginetako batzuk indoeuroparrak izan direla esan daiteke (Hartsuaga, 2004: 14).

Indoeuropar mitologia zabala eta aberatsa den arren, bi gai nabarmentzen dira: hiru funtzioen egitura (hiru funtzioren arabera zatitu zuten errealitate osoa: agintaritza, militarra eta balio multzoa) eta gizarte berriaren eraikuntza (gizartearen sorkuntza).

Lehen funtzioa eta garrantzitsuena agintaritzaren (erregea eta erlijioa) arlokoa da: agintaritza politikoa eta espirituala. Edozein motatako agintaritzarekin loturik dauden pertsonak, objektuak, ideiak edo errealitateak lehen funtzio honen barnean sartzen dira. Esaterako: erregea, koroa, jauregia, legea, miraria, e.a. Baina elementu guztiek ez zuten garrantzi bera, erregea garrantzitsuena izanik, edozein ezin zitekeen hura izan, jainkoen kuttuna bai zen (Hartsuaga, 2004: 16). Erregea izateko ere soiltasuna, ausardia eta zuhurtasuna erakutsi behar zuen pertsona horrek (Hartsuaga, 2004: 19).

Bigarren funtzioa militarra den guztiari dagokio. Gerlariak indartsua, ausarta eta soila behar du izan, eta baldintza horiek borrokan erakutsi behar dira (Hartsuaga, 2004: 21). Hirugarren eta azken funtzioa aurreko biak baino zehaztugabeagoa da. Izan ere, bertako irudiak populua, nekazaritza, oparotasuna, emakumeak, e.a. dira. Baina kasu horretan indoeuroparrentzat ezaugarri nagusiena ezkortasuna da, beraien ustez dena delako txarra edo gaiztoa. Beraz, lehen bi funtzioetako pertsonaiak egiatiak, leialak, baikorrak, ausartak, zuhurrak, e.a. dira eta hirugarren funtziokoak ezkorrak, ez dute hitza gordetzen, gaiztoak, koldarrak, gezurtiak, e.a. Horregatik, hirugarren funtzioaren parte dena ez da bere buruaren jabe izateko gai, eta beste bi funtzioetako pertsonaien menpe bizi behar du (Hartsuaga, 2004: 22- 23).

Gizartearen eraikuntzari dagokionez, indoeuroparrek badute beraien jatorriaz mintzatzen den elezahar bat, eta horri gizarte bat eraikitzearen mitoa deitzen zaio. Hala ere, indoeuropar gizarte guztietan, bi lehen funtzioen eta hirugarrenaren artean haustura gaindiezinak daude (Hartsuaga, 2004: 25), ez bai dute inolako harremanik, lurtarrentzat zerua helezina delako.

Indoeuropar mitologia pixka bat ezagututa, euskal mitologiaz hitz egiten dugunean herriak gorde dituen kontakizunen bilduma datorkigu burura. Kontzepzio tradizionalean oraindik diharduenaren arabera euskaldunek lotura dute Etxerekin (abizen askoren parte ere bada). "Etxe" lurra eta aterpea da, familia bateko hildakoak eta bizidunak elkarrekin mantentzen dituen zentroa. Hori dela eta, Etxerekin harreman estua izateak bizitzeko oinarrizko modua, sistema mitologiko eta erlijiosoa finkatu zituen, zeinek hildako eta bizidunen artean lotura/komunioa ezartzen duen (Barandiaran, 1990: 56).

Horrez gain, Euskal Herriak kanpotik hainbat eragin jaso ditu eta horietatik euskal mitologiaren eskema ideologikoan sartu direnak ere baliagarriak zaizkigu. Izan ere, posible da, Euskal Herritik kanpo agertzen den kontakizun batek bertako mitologiaren ideologia fidelki islatzea (Hartsuaga, 2004: 30- 31).

Euskal eta indoeuropar mitologiak mugakideak diren arren, horien mezu ideologiakoak ia guztiz kontrajarriak dira, eta oposizioa adierazten duen lehen adibide eta orokorrena kosmosaren irudikapenari dagokio. Euskaldunentzat mundu bakarra dago, ortziak (Eguzkiaren, Ilargiaren eta zenbait jainkoren pasabidea, tarte fisikoa), lurgaina (gizakien bizilekua) eta lurpeak (kobazuloak, jainko eta izakien bizilekua) eratzen dutena. Indoeuroparrentzat ordea, mundua bikoiztua da, Zerua alde batetik (jainkoen egoitza) eta Lurra bestetik. Dagoeneko esan bezala, hurbildu ezin daitezkeen bi errealitate dira haientzat, Zerua helezina bai da gizakientzat (Hartsuaga, 2004: 31). Baina horrekin ez da adierazi nahi lehenik gizakiak kosmosaren irudia moldatu eta irudi horretatik gero beste guztiak sortu zirenik. Izan ere, ezin da esan irudikapen kosmologiko batek ideologia bat sortzen duenik eta horrek mitologia bat, guztiak batera bai doaz (Hartsuaga, 2004: 33).

Bigarren oposizioa irudikapen kosmologikoen ondorio mitologikoen emaitza da. Euskaldunentzat jainkozko eta gizakien arteko aldea apalagoa eta hurbilagoa da, baina ez ordea indoeuroparrentzat, jainkoak Zeruan kokatzen dituztelako eta gizakiak Lurrean (Hartsuaga, 2004: 31). Azkenik, hirugarren adibidea osatzen duen oposizioa gizaki eta jainkozkoen harremanari dagokio. Esan bezala, indoeuropar mitologiak bereizketa handia ezartzen du bien artean: Zerura begira bizi direnak eta Lurrera begira bizi direnak. Zeruaren eta Lurraren arteko distantzia gero eta handiagoa izan, handiagoa izango da jainko eta gizakien arteko bereizketa (jainkoentzat gizakiak jopuak dira).

Euskal irudikapenean mundu bakarra egonda, guztiak bizilagunak dira eta horregatik jainkoek gizakiei tratu gozoagoa ematen diete (Hartsuaga, 2004: 31).

Indoeuropar mitologiako jainkoak Zeruan bizi direnez, gizakientzat helezinak dira eta ez dira Lurrera ezertarako jaisten, beraz, ikusezinak ere badira. Horregatik, beraiekin kontaktuan jartzeko modua otoitza, kultua, oparigintza, mirariak, e.a. dira. Euskal mitologian ordea, askotan igotzen dira jainko edo izakiak lurpetik lurgainera, eta gizakiekin espazio bera partekatzen dute, baina egia da ere, oraindik inork ez duela jainko edo izakirik inoiz ikusi (Hartsuaga, 2004: 49).

Esan bezala badaude jainkozkoen eta gizakien arteko harreman desberdinak. Horietako bat kultua da, eta horren atal nagusiena oparigintza. Horixe da jainkoekiko komunikabide zabalduenetarikoa otoitzarekin batera (Hartsuaga, 2004: 60) eta ia harreman mota bakarra erlijio askotan ere (Hartsuaga, 2004: 87). Esaten da ere, izaki magikoek sorginkeriarekin eta magiarekin jokatzen dutela eta prozedura magikoen bidez beraiengana hurbildu edo beraiengandik babestu daitekeela (Barandiaran, 1990: 22). Baina horiekiko dugun ideia ez da oso osatua izaten, gutxi zehaztua baizik. Bakoitzak bere kultura eta formazioarekin bat doan edukia edo ideia ezartzen dielako (Barandiaran, 1990: 23). Indoeuropar mitologian gizakiak behartuta sentitzen dira opariak egiten, jainkoekiko zorretan sentitzen bai dira eta horregatik atal hau bi hitzetan laburtzen da: axolarik eza eta arbuioa (Hartsuaga, 2004: 87). Euskal mitologian ordea, opariak elkarri egiten dizkiote jainkozkoek edo izakiek eta gizakiek, laguntasuna adieraziz, inolako derrigortasunik gabe (Hartsuaga, 2004: 64).

Gizakien jardunbideekiko jainkozkoen jarreran ere, bada oposizioa bi mitologien artean. Izan ere, beste gauza askoren artean, indoeuropar jainkoek uko egiten diote gizakiekin jolasak konpartitzeari edo orokorrean lan egiteari. Eta euskal mitologiako jainkoek ordea, eguneroko ogia irabazteko lanean jarduten dute, beraientzat lanak ez duelako lotsarik (Hartsuaga, 2004: 91). Euskal mitologiako jainkoek bezala, beste pertsonai edo jentilek (euskal mitologiako gizakiak, kristautasunaren aurreko euskal herritar paganoak sinbolizatzen dituena; erraldoi edo indartsua) ere ezaugarri horiek guztiak betetzen dituzte (Hartsuaga, 2004: 88). Baina Kristautasunaren sorrerarekin jentilen mitoen desagerpena etorri zen eta horren inguruko elezaharrak oso ezagunak dira Euskal Herrian (Barandiaran, 1990: 141).

Gure kulturan horren ezaguna del Olentzero adibidetzat jar daiteke. Izan ere, kondairaren jatorria, Olentzero jentila zen eta bere eginkizuna naturak eragiten zuen zerbaiti buruz gizakiei berri ematea zen. Baina Kristautasunak kultu pagano hori bereganatu eta eraldatu zuen. Horrela Olentzero jentila izatetik Jesusen mezularia izatera pasatu zen (Sada, 1991: 43- 44).

Indoeuropar mitologian beraz, pentsamendu teozentrista da nagusi, zeinetan jainkoa unibertsoaren erdigunea den eta horregatik guztia kontrolatzen duen. Euskal mitologian ordea, pentsamendua guztiz aurkakoa da, antropozentrikoa hain zuzen ere. Horretan gizakia izango da unibertsoaren erdigunea (Hartsuaga, 2004: 87).

2. METODOLOGIA

Gradu Amaierako Lan hau ikerketan edo arakatze sistematikoan oinarritzen da eta honen helburua tradizioa nola gaurkotu den aztertzea da. Horretarako, euskaldunontzat hurbila den euskal mitologiako Olentzero pertsonaiaren eta bere kondairaren eraldaketa aztertu da.

Lan honetan, tradizioaren gaurkotzearen azterketa hiru bide desberdinetatik buru dela esan daiteke, eta baita, hirurak toki edo emaitza berera heldu direla. Bide horietako bat, Olentzero pertsonaiaren eta bere kondairaren jatorria, eta gaur egunera arteko eraldaketak, iturri eta dokumentu desberdinetan informazioa bilduz aztertzea eta konprobatzea izan da. Modu horretan, aditu desberdinen jakintzen bidez datu ugari bilduz.

Bigarren bidea, Olentzerori egozten zaizkion kanten analisia egitea izan da. Horiek ere, kondairak bere gain jaso izan dituen aldaketak pairatu dituztelako. Belaunaldiz belaunaldi transmititutako abesti horiek dira errealitatearen isla.

Azken bideak, guretzako ezagunena den Olentzeroren kondairara gehien hurbiltzen gaituena da. Izan ere, gaur egungo literatur testu moderno baten analisia egin da. Horrela, argi eta garbi ikusten da Olentzeroren kondaira gaurko egin den ala ez.

3. OLENTZERO: TRADIZIO GAURKOTUA

Historian zehar ezagututako talde kultural guztiek mitologia bat garatu dute; naturaz gaindiko izakiei (animaliei, objektuei edo gizakiei) buruzko istorio eta kontakizunez beteak. Hasiera batean horren garrantzitsua zen kultuarekin bat erritua zegoen, zein ospakizunez bete zuten. Ospakizun horien bidez egunerokotasuneko oinarrizko gertakariak ospatzen hasi ziren, eta horretarako sakrifizioak, dantzak, kantak, irakurketak, erromesaldiak … erabiltzen zituzten (Martinez, 2009: 33). Kultura guztietan errepikatzen zen behar bat naturak egindako ekintzen ospakizuna zen (Martinez, 2009: 34).

Kultuekin harremanduriko ospakizun horietako gehienak udako eta neguko solstizioetan ematen ziren. Olentzero, hain zuzen ere, neguko solstizioaren kultuarekin harremana duen ospakizunaren parte da (Martinez, 2009: 33). Eguzki kultuarekin loturiko lehen manifestazioak mediterraneoko zibilizazioetan (Persian, Egipton, Grezian eta Erroman) topatu ziren (Martinez, 2009: 33).

Euskal Herrian, beste askoren artean, dagoeneko aipatu den Olentzeroren pertsonaia daukagu, eta mito horren praktikaren sorrera Gipuzkoan eta Nafarroan izan zela esaten dute hainbat antropologo eta etnografok, eta gerora hedatu zela Bizkaira, Arabara (Martinez, 2009: 36) eta Iparraldera (Sada, 1991: 44). Hori dela eta, toki bakoitzean modu desberdin batez deitu izan zaio pertsonaiari (gaur egun Olentzeroren izena orokortu den arren): Olentzaro, Orentzaro, Onentzaro, Onontzaro, Orentzero eta Orantzaro (Alisjostes, 2010: 50) (Satrustegui, 1988: 9). Olentzero edo berari deitzeko erabiliak izan diren izen guzti horiek konposatuak dira (Olentz+aro). Bigarren partikula hori (“aro”), garai, sasoi edo denbora bat izendatzeko modua dela esaten da (Alisjostes, 2010: 50) (Satrustegui, 1988: 9). Aditu batzuen ustetan Gabonei “onentzaro” deitzen zitzaien, hau da, onen-aroa eta azkenik bertatik atera zen Olentzeroren izena (Satrustegui, 1988: 9).

Bada ere Olentzero hitzaren jatorriaren inguruko beste pentsaera bat, zeinek esaten duen “Oles”–tik datorela. Izan ere, termino hori euskal tradizioan oso ezaguna den erronda abestietan sarri agertzen delako, eta bere esanahia eskaera delako. Beraz, hitzaren jatorri honen arabera, “Oles”-en arotik sortu zen Olentzero eta honek eskaeraren garaia esan nahi du (Satrustegui, 1988: 10).

Dagoeneko esan bezala, Olentzerok, neguko solstizioaren kultuaren ospakizuna irudikatzen zuen eta horregatik suarekin ere harremantzen zen. Gainera, beste gauza askoren artean, esaten da etxeetara sartzen zela tximiniako gabon suarekin berotzera. Suarekiko lotura horrek, San Juanetan bezala, solstizioaren ospakizun paganoa zegoela adierazten du. Gaur egun ordea, Olentzero Jesusen mezularia da, zenbait lekutan kantatzen den abesti batek dioen moduan "Olentzerok berri ona dakarrela, Jesus jaio dela" (Alisjostes, 2010: 50). Olentzerok bere lana alde batera utzi (ikatza egitea) eta herrira joan zen Jesusen jaiotzaren berri ematera (Satrustegui, 1988: 7). Kristautasunak beraz, ospakizun pagano horiek debekatu beharrean eraldatu eta bereganatu egin zituen (Martinez, 2009: 34). Hori dela eta, Gabonetako folklorean, tradizio zaharreko zenbait ohitura eta gaur egungoak nahastuta aurkitzen ditugu, eta horrek mito eta ospakizun berriak sortu ditu (Martinez, 2009: 34).

Bada Olentzero pagano izatetik, Olentzero Kristaua izatera nola pasatu zen kontatzen duen kondaira. Kondaira horrek dio hasiera batean Olentzero jentila zela eta behin, jai bat ospatzen ari zirela, hodei argitsu bat hurbiltzen ikusi zutela jentilek. Beldurtuta, jentil zaharrenari galdezka joan ziren eta horrek Kixmi (Jesus) jaio zela esan zien, eta horrekin batera, jentilen garaia bukatu egin zela. Jentil guztiek kasu egin eta kobazulo batean sartu ziren betirako bat izan ezik. Beste guztiei jarraitu ez zien jentila herrira joan zen Kixmiren berri ematera, eta Kristau garaiko Olentzero izendatu zuten (Sada, 1991: 44).

Gaur egun Olentzero Euskal Herriko ume eta ez umeei, Gabonetan opariak ekartzen dizkien pertsonaia da, San Nicolas pertsonaiaren antzekoa (Satrustegui, 1988: 20). Izan ere, Olentzero mitologia unibertsalaren ezaugarriekin bat datorren izakia da, baina modu berean, euskal tradizioaren ezaugarriak mantendu eta islatzen dituena (Martinez, 2009: 36).

Beste toki batzuetan ere bada Olentzeroren antza duen pertsonaia bat, Kantabrian eta Asturiasen esaterako. Bere izena "El Esteru" da eta egurgilea da (Alisjostes, 2010: 51). Eta baita Grezian ere, "Kallikantzaroz" izenekoa. Bera ere gauez ibiltzen omen da aurpegi zikin eta beldurgarriz urteko gaurik luzeenean (Martinez, 2009: 33).

Olentzeroren kondairaren jatorrian, Olentzero suaren eta eguzkiaren enkarnazioa zen, eta urteko gaurik luzeenean menditik jaisten zen etxeetako tximinietatik sartzeko

eta bertan erretzen ari zen egurraren magia eskuratzeko. Ondoren, baserritarrek errautsak lurrarekin nahastu eta animalietatik eta gaixotasunetatik babesteko erabiltzen zituzten (Martinez, 2009: 34). Horrez gain, bere ezaugarri nabarmenetako bat ikatza da, ikatz horrek tradizioa irudikatzen omen duelako. Hau da, menditik herrira pasatzeko bidea irudikatzen du, baita naturatik kulturarako pausoa eta hotzetik elkarren arteko goxotasunera pasatzeko bidea ere (Ruiz, 2013: o/g).

Baina pixkana, pertsonaia hori irudikatzen zuten panpina itsusiak hasi ziren etxeetako kanpoaldean eskegitzen eta hortik aurrera, Olentzeroren fama eta berarekiko ideiak aldatuz joan ziren (Martinez, 2009: 34).

Gutxika, Olentzero irudi iluna hartzen hasi zen, besteak beste: jatuna, harremantzeko traketsa, txepela, mozkorra, entendimenduz gabea (Satrustegui, 1988: 5- 7), gorputz traketsekoa, bizizalea, alproja, mozkorra, bufoia, ogroa, e.a. (Satrustegui, 1988: 15). Eta ezaugarri negatibo guzti horiengatik, Olentzeroren antza zuen panpina horiek erretzen hasi ziren urteari amaiera emateko eta horrek ekarritako gauza txar guztiak antzean uzteko (Satrustegui, u/g: 15).

3.2. Pertsonaiaren esanahia

Ikazkinak fama txarra hartu bazuen ere, herriak, euskal Gabonetako pertsonaia tripaundi eta bufoia bereganatu du eta hiri giroaren jabe egin da. Horrenbeste, non ez duen ikatzez zikindutako aurpegia garbitu edo beste ezaugarrietako bat ere alde batera utzi behar izan. Beraz, argi dago, Olentzero, gaur eguneko euskal kulturan erabat onartuta dagoela bai ume eta baita helduengandik ere. Hala ere, horren besteko garrantzia izanda, tamalez, ez dira datu berri gehiago eskuratu (Satrustegui, 1988: 12) eta dauden gehienak urteetan zehar berari buruz abestu diren kantetatik jasotakoak dira (Martinez, 2009: 34).

Olentzero, bukatzen den urtearen irudi pertsonifikatua da. Beti agure zaharkitu bezala agertzen da solstizio garaian eta ondoren, anonimatuan ezkutatzen da basoan barrena datorren urtera arte (Satrustegui, 1988: 12). Bere aurpegi latzak eta begirada beldurtiak bukatzen den urtearekiko ardura adierazten duen aldi berean, bere irribarreak urte berriarekiko Kristautasunak igortzen duen esperantzadun mezua transmititzen du (Satrustegui, 1988: 14).

XIX. mendeko baserritarren antzera jantzita irudikatzen den pertsonaia da, abarkekin, gerrikoarekin, artilezko galtzerdiekin, telazko prakekin, alkandorarekin, blusarekin, txapelarekin eta zapiarekin hain zuzen ere (Bergara, 2002: 44). Horrez gain bizar luzea, ikatzez zikindutako aurpegia eta pipa daramatza (Satrustegui, 1988: 6).

Olentzerori buruz hainbat kontu dauden arren, horietako gehienetan guri begira edo gu zelatatzen dagoela kontatzen da, hori dela eta, "366 begiko gizona" dela esaten da, urteak dituen egunak baino begi gehiago dituena (Satrustegui, 1988: 13). Oso maitatua ez zen garai horretan, baziren ere, bere maltzurkerien artean, igitaiaz, gaizki portatzen ziren edo ohera berandu joaten ziren umeei mozketak egiten zizkiela esaten zutenak ere. Edo, Gabon gauaren aurreko zapatuan barau egiten ez zuenari, igitai batez ere, burua moztuko ziola kontatzen zuena (Satrustegui, 1988: 6). Olentzeroren abestiaren bertsioetako batean honela esaten da:

"Onontzaro begi gorri
Txaminira da etorri;
Hausten balin badegu baraua
Horrek lepuak kendu guri"

Umeengana heltzeko biderik errazena tximinia zen eta Olentzero bertatik ez jaisteko haurrek gaztainak erretzen zituzten (Satrustegui, 1988: 14). Umeei horren gauza beldurgarriak kontatzen zizkieten Olentzerori buruz, non izugarrizko beldurra izaten zioten. Gaur egun ordea, umeak Olentzero ikusteko deseatzen egoten dira eta etengabe begira dagoenaren kontua "ondo" portatzeko aitzakia bezala erabiltzen da, inolako mehatxurik gabe.

Aspalditik Olentzeroren izena oso ezaguna izan den arren, berari buruzko hainbat istorio eta kondaira kontatu izan diren arren eta panpina bezala ere irudikatua izan den arren, esaten denaren arabera, pertsona bidezko errepresentazioa kontu berria da herri giroko ohituran (Satrustegui, 1988: 17). Bai ohitura berri horri esker, bai kondaira bat edo besteren bitartez (behin gaueko hamabiak pasata eta Olentzero erreta, balore positiboei paso ematen zitzaiela) eta baita tokiren baten Olentzero maltzurra ez zen kontuari esker (Leitzan esaterako, herritarrei legamia eramaten omen zien), honek zeukan irudia eta transmititzen zituen baloreak aldatuz joan ziren gaur egunera arte. Orduan, herritarrak, Olentzero ikusi egin zutela esaten hasi ziren nahiz eta horrela ez izan, eta umeei bertan egon zela zin egiten zieten (Satrustegui, 1988: 18). Horixe hain zuzen, gaur egun umeei esaten zaiena ere bada.

Olentzeroren jatorrizko esanahia zein den ia ahaztuta (neguko solstizioa adieraztea) Kristautasunak Gabon zahar eta gabon egunengatik ordezkatu dituelako, antzinako ikazkinaren irudia baztertu eta Jesusen mezularia den ikazkina dugu gaur egun. Olentzerorekiko azken ikuspuntuaren ildotik, gaur egungo folklorean balore positiboak transmititzen eta opariak ekartzen dituen pertsonaia bezala ikusten eta ulertzen dugu (Satrustegui, 1988: 18). Gaur egun, oraindik ere, jatuna eta ase ezina dela pentsatzen jarraitzen dugun arren, entendimenduz jantzia dagoen gizon bezala ikusten dugu eta transmititzen dituen baloreak positiboak direla. Esaterako, maite ditugunak errespetatzea, ondo portatzea, opariak eskaintzea, maitatzea, e.a (Satrustegui, 1988: 5-7).

1922. urtean, Manuel de Lekuonak, gaur egun ezagutzen dugun erituaren antzerako bat deskribatu zuen lehenengoz. Gabon bezperako arratsaldean, zenbait umeren konpartsek Olentzeroren antza zuen panpina bat eramaten zutela etxez etxe oles eginez kontatu zuen. Ondoren, iluntzean, gazteek, umeek egindakoa errepikatzen zuten baina kasu gehienetan haragi eta hezurrezko Olentzero batekin (Aguirre, 2006: o/g). Urte gutxitara, 1942. urte inguruan, José María Arizmendiarretak, antzerako kontua aipatzen du, haur eta gazte gehiago joaten zirela esanez eta kanta bat abesten zutela aipatuz (Aguirre, 2006: o/g).

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera
Aditu duanean,
Jesus jaio dela
lasterka etorri da,
berri ematea.

Olentzero inork ezagutzen ez duen bere etxera joan da ikazkin lana betetzera kondaira paganoak kotatzen duen moduan, baina abestiaren lehen ahapalditik Kristautasunaren eragina nabari da, Olentzerok dena utzi eta Jesus jaio dela esatera jaisten delako herrira. Beraz, argi antzematen da nola Kristautasunak ospakizuna bereganatu duen arren, tradizio zaharreko ohitura batzuek oraindik ere dirautela.

Horra, horra,
gure Olentzero
pipa hortzetan duela
eserita dago

kapoiak ere baitu
arrautzatxuakin
bihar meriendatzeko
botila arduakin.

Bigarren ahapaldi honetan Olentzero euskal tradizioan zein onartuta dagoen azkar antzematen da "gure Olentzero" esaten duelako. Horrez gain, bere janzkera eta izaera pixka bat deskribatzen da. Jatuna dela eta nahikotxo edaten duela begi bistakoa den arren oso maitatua, errespetatua eta baloratua da. Ezaugarri horiek kondaira paganotik mantentzen ditu.

Olentzero guria
ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu
hamar txerri gazte
saiheski ta solomo
makina bat heste
Jesus jaio da eta
kontsola zaitezte.

Hirugarren ahapaldian zenbat jaten duen azpimarratu egiten da, izan ere, ia ahapaldi osoa zer jan duen esatera dedikatzen da. Baina horren tripaundi eta jatuna izatea modu errez batean justifikatzen du kanta Kristau honek, Jesus jaio dela hain zuzen ere, eta hori ospatu beharra dagoela. Dena dela, nire esperientzian oinarrituta, hau da, txikitan erakutsi zidaten eta ordutik kantatzen dudan abestian oinarrituta, edo praktiketan egon naizenean umeei erakusten zaien abestian oinarrituta, hirugarren ahapaldi hau ez da oso ohikoa izaten eta normalean ez da abesten. Nik behintzat ez nuen ezagutzen eta ez dut zati hau inoiz entzun.

Olentzero, buru handi
entendimenduz jantzia,
bart arratsean
edan omen du
bost arroako zahagia.
/Bai urte tripa handia
Traralaral, traralara (Bis)

Laugarren eta azken ahapaldi honetan Olentzeroren ezaugarri gehiago ematen dira bai positiboak (entendimenduz jantzia, hau da, jakintsua dela) eta baita negatiboak (buru handia eta ardo asko edaten duela) ere. Azken lerroan gainera, kantarekin bukatzeko, jai giroa, alaitasuna, poza, e.a adierazten duen "Traralaral, traralara" abesten

da. Modu horretan abestian zehar esaten den guztia onartu eta goraipatu egiten dela ulertzen da.

Olentzeroren ospakizuna gizarte erritu bat bezala ikusia izan da eta ikusten da gaur egun ere, belaunaldien arteko lotura bermatzen duena, familia, adiskide, ezagun eta ezezagunen arteko elkartasunaren adierazgarri. Pertsonaia berezi honek, garai batean irudikatzen zuen neguko solstizioaren argia eta berotasuna nabari dira jendearen hitzetan, kontzienteki ala oharkabean (Sallaberry-Molle, 2013: o/g).

Gaur egun, eskoletan Gabonetako oporrak hartu aurreko egunean, Olentzero datorrela ospatzen da. Horretarako ohitura desberdinak dauden arren, kasu gehienetan ikasleak baserritarrez jantzita joaten dira, Olentzeroz mozorrotutako pertsona bat joaten da eskolara, bere kanta abesten dute eta Olentzerok opariak eramaten dizkie (gozokiak edo eskolarako materiala adibidez) (Aguirre, 2006: o/g).

Herri eta hirietan ere, abenduaren 24ko arratsaldean desfilea egoten da Olentzero herri bakoitzeko kaleetan zehar ibiltzeko eta umeak agurtzeko. Herri bakoitzaren tamainak, egoera ekonomikoak eta Olentzerorekiko interesak baldintzatuko du desfile horren kalitatea. Horrela, toki batzuetan Olentzero dantza taldez, koroz, animaliaz, e.a.-ez lagunduta joaten da (Aguirre, 2006: o/g). Behin desfilea bukatuta, 24ko gauean edo ohikoago 25ko goizean, umeek Olentzerok ekarritako opariak izaten dituzte Gabonetako zuhaitzaren azpian (Aguirre, 2006: o/g).

Mitoa eta tradizioa elementu bizidunak dira, momentu zehatz batean jaiotzen dira eta momentu bakoitzera egokitzen direnez, bilakaera bat izaten dute. Horregatik, gaur egun, Olentzeroren gizonezko papera orekatzeko Maridomingi daukagu eta bere laguntzaileaz gain, bere emaztea dela esaten da, horregatik azken urteotan biak batera irudikatu eta azaltzen dira. Maridomingik ez du tradizioarekin inongo zerikusirik, antzinako eguberrietako kanta batean agertzen den pertsonaia femeninoa besterik ez da (Aguirre, 2006: o/g). Kanta horretan esaten denaren arabera Belenera, Jesus haurtxoa bisitatzera joan nahi duen emakumea da, baina joan nahi izatekotan bere gona zaharra aldatu behar duela eta dotoreago jantzi behar dela esaten diote. Maridomingiren txapela da bere gauzarik deigarriena, zuria da eta adar kurbatu baten itxura du. Horrez gain hurbila, gozoa eta maitagarria da bera.

Gaur egun, Olentzeroren ospakizunarekin bat, balore berriak ere hedatzen hari dira eta ikazkinaren gizarteratze prozesuaren aurrean, herritarren eta eskolen parte hartzea oso handia da. Antolatzaile, irakasle eta guraso askok esan dute euskal kulturaren transmititzea lortu behar dela. Horretarako, ikazkinaren pertsonaiaz gain, badaude eskolan edo herrian bizia markatzen duten beste une batzuk ere, esate baterako inauteriak eta udako solstizioko San Juan sua. Ospakizun horiekin ere, gaur egungo ume eta helduei baloreak transmititu ahal zaizkie (Sallaberry-Molle, 2013: o/g).

Gaur egungo eztabaiden artean, eskolak baloreen irakaspena segurtatu beharko lukeen iritzia dago. Horrenbeste, non moralaren itzulera ere gertatuko omen da Hezkuntza Ministerioaren programetan. Hori dela eta, oso aberatsa izan daiteke gure kulturan oinarritzea, tokiko ekarpenen bitartez baloreen hezkuntza hunkigarriagoa izan dadin. Esaterako Maridomingiren bidez jende baztertuaren gizarteratzea lantzea (Sallaberry-Molle, 2013: o/g).

Olentzeroren tradizioa oso zaharra den arren, bizirauteaz gain, hedatu ere egin da, eta sekula galdu ez denez, inoiz ez da zerotik birsortu behar izan. Kondaira batek bizirauteko behar dituen elementu guztiak ditu Olentzerok: musika dauka, kanta bat eta ezer falta ez zaion kultu bat (Martinez, 2009: 35). Mitoa ez galtzeko beste arrazoi bat hau litzateke: herriak identitate eta ulertzeko bide komuna aurkitu zuela mitoaren hizkuntzaren bidez (Martinez, 2009: 36).

3.3. Ipuinaren analisia

Gaur egun Olentzeroren kondairaren inguruan hainbat ipuin daude. Horietako bat da Pello Añorgaren *Olentzero eta Maridomingi* da, 2015. urtean argitaratua, gaur egungoa erabat.

Olentzeroren istorioaren inguruko hainbat datu jaso ondoren, ipuin hau egokia da guzti hori umeei nola igortzen zaien ezagutzeko eta aztertzeko. Horren berria izanda, Olentzeroren istorioaren mezua transmititzeko nahia eta helburua eguneratua izango du. Baina izango al du betiko kondairaren antzik? Elementu asko aldatu ote dira? XXI. mendearen eragina izango al du? Argi dago, gaur egunekoa dela antzeman daitekeela izenburuagatik, izan ere, Olentzerorekin batera, Maridomingiren izena azaltzen da, berarekin bat doan emakumea.

Liburu hau 8-10 urte bitarteko umeei zuzenduta dagoela esan daiteke liburuan bertan horren inguruko daturik jartzen ez duen arren. Hala ere, *Eta zer?* liburu bildumari erreparatuz gero, antzerako formatua dutela ikus daiteke eta horiek adin tarte horretako umeei zuzenduta daude. Horrez gain, *Eta zer?* liburu bilduma, *Olentzero eta Maridomingi*-ren ipuinarekin konparatuz gero, biek dute letra mota bera, eta biek dituzte marrazkiak eskuma aldean (ezkerreko orrialdea ere hartuz) eta testu txiki bat ezkerraldeko orrialdearen erdialdean. Baina *Olentzero eta Maridomingi*-ren ipuineko aldaketa nabarmenena forma horizontala duela da. Tenperaz margotuta daudela diruditen marrazkiak ditu eta oso adierazgarriak dira testuan dioena ulertzen laguntzen dutelako, idatzia dagoena bisualki adierazten dute.

Pello Añorgak idatzitako ipuin honetan kondaira bat kontatzen da. Ipuina lehenaldian idatzita egoteaz gain, "aspaldi zaharrean" hasierarekin hasten da, neurtu ezin daitekeen denbora adieraziz (Grimal, 2007: 6).

Ipuinaren lehen orrialdeetan jentilak dira protagonistak, eta ordura arte agertu ez zen hodeitzar batek zerua estaliz hasten da kontaketa. Ordutik aurrera eguzkia ikusezin bilakatzen da jentilentzat. Gertatzen ari dena ezin ulertuta, jentil zaharrarengana joatea erabakitzen dute erantzun bat bilatzeko, eta honek garai zaharra bukatu eta berria hastear dagoela esaten die. Hori dela eta beraiek desagertu egin behar dutela. Jentil zaharrenari kasu eginez, harri handi batzuen azpian sartu, eta elurte handi batek jentilen basoa lurperatu zuen.

Ipuina, Olentzeroren kondaira paganoarekin erabat harremandurik hasten da, jentilak dira bertan azaltzen diren izakiak (euskal mitologiako gizakiak, kristautasunaren aurreko euskal herritar paganoak sinbolizatzen dituena; erraldoi edo indartsua (Hartsuaga, 2004: 88)) eta euskaldunentzat horren garrantzitsua zen eguzkiarekin arazo bat planteatzen da.

Baina *Olentzero eta Maridomingiren*-ren ipuin honetan ere, dagoeneko Sadak, *El tradicional Olentzero*-n kontatu bezala, jentiletako batek desagertzea baino hobe dela garai berria ezagutzea erabakitzen du. Nahiko janari eta edari zuenez, ez zela hilko argi zeukan. Leize-zuloan denbora luzez edaten eta jaten, pipa erre eta erre, etzanda eta bizarrak igurtzi eta igurtzi (alperrarena egiten) egon zen. Ipuinean, Olentzero izango den jentil horri, hasierako garaietatik harremantzen zaio jatuna eta mozkorra izatearekin. Baina gaur egun horren maitatua eta errespetatua den pertsonaiak ez du eragin

negatiborik umeengan. Umeek oso barneratuta dute Olentzero nolakoa den eta beste edozein pertsonarengan kaltegarriak izango liratekeen ezaugarriek ez dute kalterik berarengan. Hori dela eta, posible da ipuin honen helburuetako bat, jentilen garaitik, hau da, aspaldiko garai batetik, Olentzero jatun eta mozkor bat aurkeztea da, horrela, umeek betidanik horrelakoa izan dela pentsatzeko. Izan ere, gaur egungo umeak Olentzero maitatuz hazi dira, ez garai batekoak moduan.

Idazleak, Olentzerori, ohituta gauden baina negatiboak diren ezaugarri horiek (jatuna, mozkorra eta alperra dela) ezartzen dizkion moduan, azkar ematen dizkio ezaugarri positiboak ere. Izan ere, ipuinean irakurri daiteke, nola behin elurtea bukatutakoan, Olentzero, leize-zuloan horrenbeste denbora egon ondoren indargabeturik zegoela. Baina horren kementsua eta ausarta zenez, ez zuela etsi eta Maridomingirengana jaitsi zela garai berriaren berri ematera. Ipuinean transmititzen da Olentzerok gaur egungo umeentzat duen magia, edozer gauzari aurre egin diezaiokeen gizona baita. Ipuinean, Olentzero, Jesus jaio denaren berri ematera herrira joan beharrean, Maridomingiren kortara jaisten da eta ez berri erlijiosorik ematera, baizik eta, garai berria datorrela kontatzera.

Olentzero eta Maridomingi-ren ipuin honetan, Olentzeroren kondairan bezala, Maridomingiren perstonaia bat batean agertzean da, aurretiazko loturarik gabe. Pello Añorgak, Maridomingi emakume argi eta sorgin (ezkutuko botereak dituena) bezala deskribatzen du, baina ez da argi geratzen bera ere jentila den ala ez, zergatik ezagutzen duten elkar edo beraien arteko harremana zein den. Izan ere, agur egun senar-emaztea direla esaten da baina inolako probarik gabe. Horregatik izango da beraz, idazleak airean uzten duela. Horren kondaira indartsu eta zabalduaren aurrean, Olentzeroren gizonezko pertsonaia orekatzeko Maridomingi azaldu da eta horregatik ipuin honen parte era bada. Genero bereizketa gutxitzea helburuetako bat den arren, Maridomingi sutondoan eta taloa egiten agertzen da, eta emakume argia dela esaten den arren, Olentzerok ematen dio garai berriaren berri. Beraz, nahita edo nahi gabe, baina emakumea sukaldean, janaria egiten eta gizonezkoa informazio berriaren emailearen topikoetan erortzen da ipuina.

Maridomingi eguberrietako kanta batean agertzen den pertsonaia femeninoa da eta abesti horretan bezala, ipuin honetan ere, bere gona zaharra aldatzeari erreferentzia egiten zaio eta nola ez adar formako bere burukoari. Beraz, Kristau kanta horretan,

Belenera joan nahi izatekotan, gona zaharra aldatu behar duenaren beharrak, eragin handia du gizartean eta horren isla antzematen da.

Olentzeroren kondaira paganoak ez du indarra galtzen ipuin honetan, izan ere, garai berri hori ezagutu ahal izateko, eguzkiari lagundu beharko diotela esaten dio Maridomingik Olentzerori. Hor ikusten da, euskaldunak eguzkiari oso lotuta zeudela eta berarengatik gauza asko egiteko gai zirela. Horregatik, eguzkiari laguntzeko txondor bat egiten dute. Bada berriz ere, txondorra egin behar duten unean, Olentzeroren gizonezko pertsonaiak, rol maskulinoa hartzen duen momentua. Izan ere, kontatzen da, bera bakarrik arduratzen dela basotik adar guztiak mozteaz, eramateaz, ondo kokatzeaz eta belarrez eta orbelez estaltzeaz. Gizonezkoen lana ote da hori? Maridomingik ezin ahal dio lagundu?

Olentzerok txondor ikaragarria egiten duen arren, ez da nahikoa eguzkiari laguntzeko, motel jarraitzen bai du, eta herriko jendeari gertakariaren berri emanda laguntza eskatzen diete. Jende mordoa hurbiltzen da, horietako gehiena ikazkinak (marrazkiak aztertuko ez diren arren, garrantzitsua da esatea laguntzera doazen gehiengoak gizonezkoak direla marrazkian). Laguntzarekin punta-puntako txondor bat egitea lortu eta txondorraren suari esker, erdi hilda dagoen eguzkia bizi-berritzea lortzen dute, hau da, eguzki berria jaiotzea. Modu horretan ipuinaren hasieran agertutako hodeitzarra erabat desagerrarazten da. Eta honela esaten du Maridomingik : *Hil da eguzki zaharra, jaio da eguzki berria, haur bat bezala. Hau da, hau, zoriona !*

Momentu batean ere, ez du Jesusen jaiotza aipatzen, idazleak ez die erlijio Kristauak transmititzen dituen ideiei erreferentzia zuzenik egiten, baina posible da, ume batek hori irakurtzean, eguzkiaren eta Jesusen jaiotza harremantzea, hori baita beraiek ezagutzen dutena. *Ume* hitzak lotura handiagoa izan dezakeelako Jesus haurtxoarekin eguzkiarekin baino.

Olentzero eta Maridomingi-ren ipuin honetan, eguzki berriaren jaiotza ospatzeko Gabon gaueko afaria egiteko biltzen dira txondorra egin duten ikazkin eta herritarrak. Bai kondaira paganoak kontatzen duen istorioan, hau da neguko solstizioaren ingurukoa, eta baita Kristautasunak kontatzen duenean ere, hau da, Jesusen jaiotzaren ingurukoa, bietan transmititzen da gau horretan ospakizun bat egiteko ideia. Hori dela eta, ipuin hau irakurtzen duten ume gehienak, identifikaturik sentituko dira beraiek ere tradizio hori jarraitzen dutelako.

Egun osoa lanean aritu ondoren eta afaldu ostean, Olentzerok, aurpegi ikaztua eta begi gorriak ditu ipuinean, eta hamar arroako zahagia eta kapoiak arrautzatxoekin jan baditu ere, ez da ase. Hona hemen Olentzeroren kantan agertzen diren hitz garrantzitsu batzuk, zeintzuek adierazten duten Olentzerok egun artatik Gabon gauero zer jaten duen, eta baita bere izaeraren edo itxuraren ezaugarrietako batzuk zeintzuk diren. Esan bezala, ipuineko Olentzero gaur egungoarekin erabat identifikatu daitekeen arren, istorio honetan, Olentzerok ez dio jentil izateari uzten momentu batean ere eta ez da aipatzen ikazkina denik.

Afaldu ostean, kantuan eta dantzan aritu ondoren, enbor handi baten adarrak hartu, eta su berria zeriela umeei oparitzen dizkiete ipuineko bi protagonistek. Umeak horren zoriontsu ikusita, urtero, Gabon zahar gauean, txondorra piztu ondoren, Maridomingi eta Olentzero etxez etxe ibili dira opariak eta zoriontasuna banatzen beraien abestiak kantatuz.

Ipuinaren bukaeran Olentzero eta Maridomingiren kantak ageri dira baina bietako batean ere ez da erlijioarekin harremana duen hitzik ageri.

Olentzeroren kanta:

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera,
aditu duenean
haurra jaio dela
lasterka etorri da
berri ematera.

Abestiaren ahapaldi bakarra ikusi daiteke erlijioarekin lotura duen hitza bertan azaldu beharko litzatekeelako. Jesus jaio dela esan beharrean, “haurra” esaten du besterik gabe, edozein ume izan daiteke baina ipuina irakurri ondoren, eguzki berriarekin harremantzea posible da. Bestalde, 1942. urte inguruan, José María Arizmendiarretak, aipatu zuen abestiarekin (Aguirre, 2006; o/g) alderatuz gero, oso antzekoa dela ikusten da. Baina bada desberdintasun bat, eta hori, osorik aztertutako abestiaren hirugarren ahapaldia, ez dela ipuinaren bukaeran datorren abestian agertzen da. Estrofa hori gutxitan abesten da eta horregatik ez da horren ezaguna.

Maridomingiren kanta:

Horra Mari Domingi, begira horri
gurekin nahi duela
herrira etorri.
Gurekin nahi baduzu **herrira** etorri
Atera beharko duzu
gona zahar hori.
…

Hatoz goazen eta **agurtu** dezagun
Herrian jaio den haurtxo eder hori
Haurtxo eder hori.

Maridomingiren abestia ere ez da osorik agertzen lanaren atal honetan, soilik hitz gakoak (sentsu erlijiosoa izan beharko luketenak baina idazleak aldatu egin dituenak) agertzen diren ahapaldiak aukeratu dira. Kasu honetan lehenengokoa eta azkena. Lehenengo horretan "herrira" hitza aipatzen da birritan, eta jatorrizko bertsioan edo bertsio erlijiosoan "Belenera" esaten du, eta baita bukaeran beste behin ere. Belen bai da Jesus haurtxoaren jaioterria. Azken paragrafoan, "agurtu" hitza azaltzen da "adoratu" beharrean. Horren bidez interpretatu daiteke "haurtxoa agurtzea" maila bereko pertsonen arteko ekintza dela. Baina "haurtxo bat adoratzea" gure gainetiko pertsona bati erreferentzia egiten dio. Jainkozkoen eta gizakien arteko bereizketa nabari da, eta antz gehiago du indoeuropar mitologiarekin, euskal mitologiarekin baino.

4. ONDORIOAK

Lan honen bidez konprobatu ahal izan da tradizioa gaurkotu egiten dela gizarteak eraldaketak jasaten dituen heinean. Horregatik esan daiteke, zaharra den arren, bizirik dagoela. Hau da, adierazgarria eta beharrezkoa izaten jarraitzen duela eta erabili egiten dugula. Gure ohituren parte izaten jarraitzen du eta antzinako gertakarien, pentsamenduen eta sinesmenen inguruko jakin mina sortarazten digu (Grimal, 2007: 8).

Hori konprobatzeko Olentzeroren kasua guztiz baliagarria izan da. Olentzero forma askotariko sinboloa da, zeinek, antzinako ohiturekin eta kultuekin (solstizioa) bat egiten duen aldi berean, euskal pentsamendu erlijiosoaren bilakaera sintetizatzen duen. Beraz, trantsiziozko pertsonai honek kontzepzio erlijioso kontrajarriak hartzen ditu bere gain testuinguru mitikoan (Satrustegui, 1988: 20).

Gainera, argi ikusi da Olentzerok bilakaera bat jasan duela eta orain ere jasaten ari dela. Aspaldian, Olentzeroren fama eskasa zela jakina da, hori dela eta, kondaira gaurkotuz joan den heinean, umeentzat zuzendutako pertsonaiaren ezaugarri ez eredugarriak desagertuz joan dira. Beraz, Olentzeroren kondaira aldatuz joan da, eta gaur egunera arte asko leundu da, umeei kontatzeko atsegina bihurtu den istorio bat lortu arte. Horrela, umeek, Olentzero berri hori maitatzen hasi ziren, gaur egun pertsonaia mirestera heldu diren arte (Satrustegui, 1988: 20). Kristautasunak, bai Olentzero eta baita bere kondaira bere gain hartu zituen arren, eta gaur egun oraindik kutsu erlijiosoa duen bertsioak indar gehien duen arren, Pello Añorgaren ipuinarekin ikusten da, nola pertsonaia neutro bat bilatu nahi den. Hori lortzekotan, etorkizunean Olentzeroren kondairak ez du eragin erlijiosorik izango eta bertsio paganoari antz gehiago izango dio.

Gaur egun, Olentzero gure gizarte honetan oso pertsonaia garrantzitsua dela argi dago, horrenbeste, non genero berdintasunaren alde egiteko Maridomingiren pertsonaia harremandu duten berarekin. Olentzerorekin batera doanez, ia-ia gauetik egunera agertu zen emakume hau guztiok onartua izan da eta umeei ez zaie bat ere arraroa egin bere presentzia.

Umeei, garai batean mitoekin gertatu zen moduan pasatzen zaie. Txikitan, arrazoitzeko gaitasun handirik ez duten bitartean, eta beraien munduan magia erreala dela uste duten bitartean, Olentzero pertsonaia erreala dela pentsatzen dute, eta eredu bat da beraientzat. Baina momentu bat heltzen da, non arrazoitzen hasten diren eta erreala ez dela konturatzen diren, beraz, ordura artekoa ideia profanoan bihurtzen da. Hala ere, beste zenbait urtetan, benetakoa ez dela badakiten arren, magia horren errautsak mantentzen dituzte, oso garrantzitsua eta berezia izan bai da beraientzat.

Olentzero eta Maridomingiren ipuinean hodeitzar batek Eguzkiaren lekua hartu eta hau amatatzen joatea eragiten du, argia emateko indarrak galdaraziz. Gauza bera gertatzen zitzaion Olentzeroren kondaira paganoari. Kristautasunak indarra hartu, eta Euskal Herrian hedatu zenean, pixkanaka-pixkanaka aurretik ezagutzen zena desagerrarazi zuen eta gaur egun ezagutzen duguna sortu. Ipuin hau izan daiteke beraz, aspaldi galdu zen kondaira bat umeei ezagutarazteko modua, aspaldiko kondairaren berpiztea. Umeak konturatu daitezen gaur egun ezagutzen dutena ez dela beti kontatu izan dena.

Mitologian, mitoetan eta euskal mitologian pixka bat sakondu ondoren, eta behin Olentzeroren kasua aztertuta, interesgarria izango litzateke etorkizun batean umeengan gehiago zentratzea. Hau da, Olentzerok umeengan zer eragiten duen, kondaira nola bizi duten, pertsonaia honek zer esan nahi duen beraientzat, zenbat urtetaraino sinesten duten berarengan, Maridomingi nor den beraien ustez, kondairari buruz zer ezagutzen duten, ea horren ezaguna den bere abestia osorik dakiten, abestitik zer ulertzen duten, e.a. ikertzea eta ezagutzea. Modu egokia izan daiteke lan honi jarraipena eta erabateko osotasuna emateko. Zer hobe bizirik dirauen kondaira bat, bizirik egotea eginarazten duten pertsonen ilusio eta pentsamenduekin osatzea baino.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Aguirre Sorondo, A. (2006). El mito del Olentzero. *Eusko media.* 2016-02-12 ean http://www.euskonews.com/0375zbk/gaia37503es.html -tik berreskuratua.

Alijostes Bordagarai, K. (2010). *Euskal Herriko Pertsonaia Mitologikoak/ Personajes Mitológicos de Vasconia.* Vitoria- Gasteiz: Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia/ Imprenta de la Diputación Foral de Álava.

Añorga, P. (2015). *Olentzero eta Maridomingi.* Donostia: Elkar.

Barandiaran, J. M. D. (1990). *Mitologia vasca*. Indice analítico por J. Caro Baroja. San Sebastián: Txertoa.

Bergara, A. (2001). *Mitologika, euskal herriko izaki magikoak gaur egungo ikuspuntutik.* Bilbo: Astiberi Ediciones S.L.

Caro Baroja, J. (1991). *De los arquetipos y leyendas.* Madrid: Istmo.

Eliade, M. (1985). *Mito y realidad*. Bartzelona: Labor.

Grimal, P. (2007). *Mitología, Mitos y Leyendas del Mundo.* Barcelona: RBA libros.

Hartsuaga, J. I. (2004). *Euskal mitologia konparatua; Jentilen akabera*. Donostia: Gaiak.

Ruiz, A. (2013). Hemen da Olentzero. *Berria.* 2016-04-03ean http://www.berria.eus/albisteak/87145/hemen_da_olentzero.htm -tik berreskuratua.

Sada, J. M. (1991). El tradicional Olentzero. *Narria: estudios de arte y estudios populares*, 55-56 zenb., 43-45.

Sallaberry- Molle, G. (2013). Olentzero: Antzinako ohituretatik gaur egungo ospakizunetara. *Euskonews.* 679.zbk. 2016-04-03ean http://www.euskonews.com/0679zbk/gaia67903eu.html -tik berreskuratua.

Satrústegui, J. M. (1988). Olentzero, Estudio del personaje mítico vasco. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 20(51), 5-22.

Soto, P. M. (2009). Olentzero: evolución de un mito. *Antzina: revista de genealogía vasca e historia local*, (8), 33-37.